

EKONOMIA

Negu gorria



NAROA ELORTZA
GORROTXATEGI

Aurrekontuak eta urteko kontuen itxiera, ez da besterik urteko garaiotan; etxeko ekonomiatik hasita, partekatzen ditugun espazio sozioekonomiko gehienetara. Enpresa handiak hasi dira kalkulagailuak ateratzen eta 2025ari begira asmo handiak martxan jartzen. Erakunde eta eragile txiki eta ertainak ere, hementxe, sosak eta erronkak nondik atera asmatu nahian. Proiektu eta amets handiak ditugulako, eta gehiegitan zuloz betetako poltsikoak.

Urte berriari begira panorama eskasa dugu inguruan: Siemens Gamesa 423 behargin kaleratuko ditu, Astilleros Balenciaga hartzekodunen konkurtsoan sartuko da, Gasteizko SDA Factoryk atea itxiko ditu, BSHk Eskirotzeko 660 langile kaleratuko ditu... eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldeko ekonomia sozial eraldatzaileko enpresak baztertzea erabaki du. Besteak beste, Olatukoop sareak bultzatutako Koopfabrika ekintzailatza programa ez babestea erabaki du, eta formakuntza zein ahalduzko kooperatiboari laban-kada eman dio. Neguko hotza hezurretaraino sartu zaigu, hainbat proiektu kooperatibo eta eraldatzaile arriskuan jarri baitituzte.

Dirulaguntzei esker, termino kapitalistetan bideragarritasun zalantzagarria duten hainbat eta hainbat proiektu aurrera atera ahal izan dira. Txikiei eta sareei emandako laguntzek alternatibak eraikitze baldintzak sortu dituzte. Baina laguntzekiko dependentzia ikaragarritzko arriskua da burujabe izan nahi duten proiektuentzat. Horregatik dira hain garrantzitsuak Koop57 moduko sareak, eraldaketa soziala eskuin politiken menpe egon ez dadin.

Honekin doakizue, beraz, Koop57ra batzeko gonbidapena, baina baita negu honetan elkar babesteko eta indartzeko deia ere. Ekonomia sozial eraldatzaileak zaintza behar duen moduan, langile borrokak guztion indarra behar duelako. Eutsi! ●

ANALISIA



ZARAUZKO UDALA (2021)

Zure herriko Baltasarrek ere 'blackface' egiten du?

LEIRE ARTOLA ARIN

Badatoz urteko asterik magikoenak, edo hobe esanda, kontsumistenak. Askori gustatuko litzaieke opariak Olentzeroren zakutik jasotzea, zerutik erorita bezala, baina errealitatea da Gabonetan gure zakutxoak direla gehien sufritzen dutenak, poltsikoak hustuta hasten dugula urtea. Magiaren izenean, etxeko txikiaren ilusioa ezin zapuztuko baitugu. Zenbat konfiantza ikazkin xume musu-gorriaren ahalmenean.

Baina euskal tradizioak sutsuki defendatzen dituzten askok ere ez dute nahikoa Olentzerorekin, eta Errege Magoen etorrera ere ospatzen dute. Gure kaleak desfile koloretsuz betetzen dira, eta hiru gizonak jantzi ponposoak eta *urrezko* bitxiak luzitzen dituzte pajeen babesean. Zein da zure erregea? Kontuz, herri askotan badago errege bat, ikatzez belztutako Olentzeroren aurpegiak baino margo beltz gehiago duena, eta haurrari masaila zikinduko diona muxu ematerakoan. Bai, Baltasar da, Baltasar zuria, 2024an oraindik ere *blackface* praktika arrazista egiten jarraitzen duena.

Ez, kritika ez da "faltsua eta *kutrea*" dela aurpegia margotuta izatea, eta umeek atzeman dezaketela ez dela "benetako" Baltasar. Ez. Kontua da aurpegia beltzez pintatzea pertsona arrazializatuen aurkako iraina izan dela duela hainbat mendetatik (XIX. mendean lortu zuen arrakasta AEBetan, baina XV. mendeko adibideak ere badaude), eta hala izaten jarraitzen duela. Antzerki eta musikaletan erabiltzen zuten "mozorro" hori pertsona zuriek, eta esklabizatutako pertsona beltzak irudikatzen zituzten, azala beltz-beltzez eta ezpainak lodi eta gorri makillatuta, haien itxura karrikatura bihurtzeko. Alegia, umorearen izenean zuriek barre egiten zieten beltzei, Ana Bueriberi kazetariak Afrocolectiva hedabidean gogorarazten duenez.

Umorearen muga horiek pasa zituen, hain zuzen, 2020an ETBko *Barre Libre*a saioak, eta Bizkaiko SOS Arrazakeriak eta beste zenbait elkarten salatu zuten telebista saioan egindako *blackface*-a arrazista zela. Salaketa horri esker eszena ezabatu eta barkamena eskatu zuten egileek. Arrazakeria zer den ondotox dakiten AEBetatik hasita, munduko txoko ugarian pentsaezina da egun *blackface*-a kalean eta lasai ederrean egiten jarraitzea. Euskal Herrian oraindik ez gara konturatu? Egia da azken urteetan herri batzuetan praktika arrazista hori egiteari utzi diotela, eta eztabaida piztu izan dela, Iruñean, kasu. Baina oro har ez dago kontzientziarik, bestela ez lirakeke hainbeste Baltasar makillatu ikusiko urtarilaren 5eko kabalgatetan; gaian oso galduta gabiltza, "aurrerakoenok" ere bai. Olentzerok aurten magia antiarrazista ekarriko du gurera? Ala eraginkorragoa izango da geuk aldatzea Baltasar arrazista? ●